

Ordizian, **bi mila eta bederatziko urtarrilaren hogeian** UDALBATZARRAK **APARTEKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea

**BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Iñigo Manrique Cía	PP	taldea
Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea

**Behin-behineko IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**INTERPRETARIA:**

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1.- Toki Inbertsioetarako Estatu Fondoaren kontura diru-laguntzak eskatzea  
..... **4.orr.**

GORABEHERAK

Udal langileak etorri dira, aurretik asanbladan elkartuta egon direlarik.

ORDUTEGIA:

**HASIERA: 8,05 etan**

**AMAIERA: 8,15etan**



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

## 1.-Toki Inbertsioetarako Estatu Fondoaren kontura diru-laguntzak eskatzea

### Proposamena

Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretuaren bidez gobernu zentralak Toki Inbertsioetarako Estatu Fonda sortu zuen, Udalek enplegua sortuko duten inbertsioak egin ditzaten bultzatzeko.

Ordiziako udalak guztira 1.652.893 euroko laguntza eskatu dezake baldintza hauek betetzen dituzten inbertsioak egiteko: Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 6. artikuluan definitutako obrak izatea, 2009ko Udalaren aurrekontuan ez aurre ikusita egotea eta exekuzioa Herri Administrazioen Ministerioak baimena ematen duenetik hilabeteko epean hastea.

Herri honen beharrianak ikusirik eta esandako diru-laguntzen bidez finantzatu daitezkeela ulerturik, proposatzen da honako

AKORDIO PROIEKTUA:

#### **1.- Honako obra proiektu hauek onartzea:**

- 1.- Jubilatuen Etxearen handitzea eta berritzea, 344.186,33 euroko kostua duena, BEZ barne.**
- 2.- Majori polikiroldegiko igerilekuaren eta tenis-zelaiaren hondartza gunea berrantolatzea eta handitzea, 1.036.45,07 euroko kostua duena, BEZ barne.**
- 3.- Lazkaomendi kalea eta inguruko eremu hondatuak lehengoratztea eta hiri eremua biziberritzea, 271.768,60 euroko kostua duena, BEZ barne.**

#### **2.- Aipaturiko inbertsioak finantzatzeko Herri Administrazioen Ministerioari 1.652.000 euroko diru-laguntza eskatzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Alkate jauna

Estatuko Inbertsio Fondoaren kontura eskatu behar diren proiektu guztiak azaldu ditu.

- Jubilatuen handitzea: Lehen faseko obrak egiteari ekin zaio. Aterpea ixtea, behe solairuko bainuak eta solairu artekoa lortu.



- Majori. Kanpoko igeritegiko berdegunea handitu da, etorkizunerako egitura bat sortuz horretarako eta kiroldegia handitzeko balizko aukerari atera irekita utzi.
- Lazkaomendi kalea eta ingurua hobetzeko: Gaur egun nahikoa hondatuta dagoen gunea delako.

Proiektu horietarako ekintza-aukerak mahai gainean direla esan du, baina gaur egun dagoen egoera ekonomikoa ikusita, ezinezkoa zen dena batera ekitea.

### Dubreuil jauna

Inbertsioetarako fondoak berri ona izan dela uste du, legealdirako gobernu-taldeak adostutako proiektuak arriskuan ikusten zituelako, eta horrekin aurrera ateratzeko aukera ematen du. Goierrin 8 milioi euro izango dira eta Gipuzkoan ehun eta piku milioi euro.

Onartutako hainbat proiektu herritarrek eskatutakoak dira dagoeneko.

Majori handitzeko proiektua oso positibotzat jo du, etorkizunerako ematen dituen aukerengatik

### Galparsoro andrea

Ados daude proiektuekin eta oso asmatutakoak iruditzen zaizkio, baina, beti bezala, ez daude ados horiek aukeratzeko erabili den moduarekin. Ez da bere taldearekin hitz egin.

### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako alaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.



